KOMUNIKAZIO-SISTEMA

MODUA	ARDURADUNA	DATA
INTRANET	ATB	

ALDAKETEN HISTORIKOA

Edizioa	Data	Egindako aldaketak

ONARTZE-PROZESUA

Arduraduna: prozesuaren arduraduna	**Onartzeaz arduratzen den organoa**
ATB Saila	Tokiko Gobernu Batzordea
Sortze-data: 2019ko URTARRILA	**Onartze-data: 2020ko maiatzak 5**
Azken berrikuspenaren data:	**Azken onarpenaren data:**

1.- XEDEA:

Prozedura honetan, interesdunek beren datu pertsonalen babesari lotutako eskubideak egikaritzeko bete behar dituzten urratsak deskribatzen dira (urratsok titularrek beraiek, edo horien legezko ordezkari edo ordezkari boluntarioek egin ditzakete).

Zehazki, legeak honako eskubideak aurreikusten ditu:

a) interesdunaren datu pertsonalak erabiltzea,
b) zuzentzea
c) ezabatzea
d) datuen tratamendua mugatzea
e) tratamenduari aurka egitea
f) datuen portabilitatea (Administrazio Publikoan ez da aplikagarria)

Era berean, prozedura honetan kudeaketa eta jakinarazpenen fluxua ere ezartzen da, hala barne-mailan nola hirugarren aldeei dagokienean (datuak babesteko eskubideak egikaritu nahi dituzten herritarrak).

2.- IRISMENA

Bermeoko Udalaren sail guztiak, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua, Beruala, Kirol Patronatua.

3.- AZPI-PROZESUAK

4.- PROZEDURAN SARTU ETA IRTENDAKOAK

PROZEDURAN SARTU ETA IRTENDAKOAK					
Sartutakoak (INPUTA)	**Baliabideak**	**Irtendakoak (OUTPUTA)**	**Bezeroa**	**Faktore gakoa**	**Konpromisoak**

5.- PROZEDURAREN KUDEAKETA ETA HOBEKUNTZAREN ARDURADUNA:

Arduraduna: **Antolakuntza eta Teknologia Berriak**

Prozeduran parte hartu dutenak: **Tratamenduaren arduradunak (arduratu den barne-saila)**

Datuak Babesteko Ordezkaria

6.- PROZEDURA:

1. Eskabidea jasotzea

[Etapa honek Sarrera-erregistroari eragiten dio batez ere (interesdunei arreta emateko izendatutako solaskideak)].

Eskabidea honakoek formulatu ahal izango dute:

a) interesdunak berak (NAN edo dokumentu baliagarriaren kopia aurkeztuz identitatea egiaztatuta);

b) interesdunaren legezko ordezkariak, interesdunak -ezintasun edo adingabetasunaren ondorioz- eskubidea egikaritu ezin badu (legezko ordezkariaren egiaztagiriaren kopia aurkeztu beharko da);

c) interesdunak berariaz izendatutako ordezkari boluntarioak (interesdunaren beraren identitatea egiaztatuta -NAN edo dokumentu baliokide bidez- eta egintza bakoitzerako emandako ordezkaritza egiaztatuta -zuzenbidez baliagarria den eta idatziz jaso daitekeen edozein bidetan egiaztagirien kopiak aurkeztuz-); edo APUD ACTA ahalorde bidez Berhaz bulegoan bertan (BAZ).

Aipatutakoek, eskubidea egikaritzeari lotutako eskaria egiteko, beren orri propioa aurkeztu edo erakundeak emandako inprimakia bete dezakete («Datuak babesteko eskubidea egikaritzeko eskabidea»; 1. Eranskina).

Kasu bietan, interesdunek honako aukeren artean hauta dezakete:

a) Eskabidea aurrez aurre erakundean bertan aurkeztea, Sarrera-erregistroaren edo bulego baliokidearen bitartez (Correos, Eusko Jaurlaritza)

b) Egoitza elektronikoaren bidez tramitatzea.

Tratamenduaren arduradunari zuzendutako eskabidean honakoak adierazi beharko da:

- Interesdunaren izen-abizenak; NANaren fotokopia (edo baliokidea) eta, hala badagokio, ordezkariarena; ordezkaritza horren egiaztagiria.
- Eskaera funtsatzen duten datuak (eskubide mota eta eraginpeko tratamendu/datuak).
- Jakinarazpenetarako helbidea, data eta eskatzailearen sinadura.
- Egiten den eskaerari dagozkion egiaztagiriak, halakorik behar izanez gero.

Dokumentua erregistratu ondoren, dagokion sailari eta Datuak Babesteko Ordezkariari bidaliko zaie.

2. Eskabidearen ebazpena

[Etapa honek Tratamenduaren arduradunari eragiten dio batez ere («tratamenduaren barne-jabea»)].

Tratamenduaren barne-jabeek (eta, hala badagokio, aholkularitza juridikoak), datuak babesteko ordezkariaren laguntzaz, interesdunaren «datuak babesteko eskubidea egikaritzeko eskabidea» edo eskaera-inprimakia aztertu egingo du, eta hura onartu edo ukatzea proposatuko du, gehienez, **hilabete naturaleko epean** (Sarrera-erregistroan sartu den momentutik aurrera). Ondoren, aurretiko Alkatetza Dekretua kontuan hartuta, modu funtsatuan eta behar bezala jakinaraziko zaio interesdunari eskabidea onartua edo ukatua izan den, erabaki horren arrazoiak azalduta (hau da, hura funtsatzen duen lege-oinarria). Azken kasu horretan, Tratamenduaren barne-jabeek eraginpeko pertsonari jakinarazi behar diote eskubidea duela kontrol agintaritza eskudunarengandik tutoretza bereganatzeko.

Datuak erabiltzeko eskubidea honako kasu hauetan ukatu ahal izango da:

- Eskaria interesduna bera edo haren ordezkaria ez den beste pertsona batek egin badu;
- Aurreko sei hilabeteetan datuok erabili badira eta interesdunak hartarako interes legitimorik justifikatzen ez badu;
- Egoera zehatza Legean aurreikusita badago; edo,
- Aplikagarri den lege mailako edo erkidego-zuzenbideko arauren batek ezartzen badu fitxategiaren arduradunak ezin diola interesdunei tratamenduaren berri eman.

Baimena onartuz gero, baimenaren idazki berean adierazi beharko da nola egikarituko den eskubidea.

Erantzunaren jakinarazpena (positibo zein negatiboa) aurrez ezarritako epearen barruan (hilabete naturala) bidaliko zaio interesdunari. Horretarako, eskabide-inprimakian adierazitako bidea baliatuko da.

3. Eskubidea egikaritzea

[Etapa honek Sarrera-erregistroari edota Tratamenduaren arduradunari dagozkion zerbitzuei eragiten die batez ere («tratamenduaren barne-jabeak»)]

Eskatutako eskubideak -onartua izatekotan- berekin dakartzan jarduketak aurrez ezarritako gehienezko epearen barruan burutuko dira (hilabeteko epean, edo, kausa justifikatua aurkeztuta, bi hileren buruan).

Egoki burutuko direla egiaztatzeko moduan gauzatuko dira jarduketak (adib. dokumentazioa bidaltzea bada, posta ziurtatu bidez bidaliko da, hartu-agiriarekin). Hartu-agiriak froga gisa gordeko dira.

7.- ADIERAZLEAK

Adierazleak	Nork aztertzen du	Non	Noiz	Nola

8.- APLIKA DAITEKEEN LEGEDIA

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea
- Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 oinarri Legea
- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUARENA, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, DBEO) indargabetzen duena. 15-22. ARTIKULUAK
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

9.- DOKUMENTAZIO ERLAZIONATUA

- 1. Eranskina: ESKUBIDEAK EGIKARITZEKO ESKABIDEEN EREDUA - **IN-G 253**

Dagoeneko badauzkagu ebazpen-proposamen normalizatuak; gutxieneko edukiak txertatu beharko lirateke aplikazioan.

10.- ARGIBIDEAK-KONTZEPTUAK:

Eskubideei arreta eskaintzeko arau nagusiak

Nork egikaritu ditzake eskubideak?

Pertsona fisiko orok egikaritu ahal izango ditu eskubideak, hala zuzenean nola legezko ordezkari edo ordezkari boluntario baten bitartez.

Eskabidea jasotzeko eta frogatzeko bideak

Eskabide guztiak hartuko dira kontuan, hala aurrez aurre aurkeztutakoak, nola posta elektroniko edo bide telematikoen bitartez aurkeztutakoak. Jasotzeko prozeduretan ahalik eta exijentzia txikienak ezarriko dira, eta erantzuna erraz eta azkarra izango da.

Tratamenduaren arduradunari dagokio eraginpeko pertsonak bere eskubideak egikaritzeko igorri duen eskabideari erantzuten zaiola frogatzea.

Tratamendu-eragileak, halakorik balego, ahalmena izango du -arduradunaren izenean- interesdunaren eskubideak egikaritzeko eskabidea jasotzeko, baldin eta hala ezarri bada alde biak (arduraduna eta eragilea) lotzen dituen kontratu edo egintza juridikoan.

Balioespena

Oro har, eskubideak egikaritzeko bideak **doakoak** izango dira eta eskuragarri egon beharko dute. Eskabideak ageriki oinarririk gabekoak edo gehiegizkoak badira (errepikakorrak izateagatik[1] batez ere), tratamenduaren arduradunak honako aukerak izango ditu:

a) Informazioa edo jakinarazpena emateak edota eskatutako jarduketa gauzatzeak eragin dituen kostu administratiboen araberako arrazoizko kanona kobratzea,

b) edo eskatutako prozedura gauzatzeari uko egitea.

Azken kasu horretan, arduradunaren egitekoa izango da eskabidea ageriki oinarririk gabea edo gehiegizkoa dela frogatzea.

Interesdunak eskabidea bide elektronikoen bitartez aurkezten duenean, informazioa, ahal dela, bide elektronikoen bitartez helaraziko zaio, salbu eta interesdunak berak beste bide baten bitartez jasotzeko eskatzen badu. Edonola ere, eskubidea egikaritzeko aukera ezin izango da ukatu interesdunak beste bide bat eskatu duelako soilik.

Ukatzea

Eskabidea ukatuz gero, jardute ezaren arrazoiak luze gabe jakinarazi beharko zaizkio interesdunari, gehienez, eskabidea jaso den unetik hilabetera; horrekin batera, Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkezteko eta ekintza judizialak abiatzeko aukera baduela adierazi beharko zaio.

Epeak

Eskabide bati erantzuteko gehienezko epea **hilabetekoa** da, berau jaso den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori, beharrezkoa balitz, beste bi hilabete luzatu ahal izango da, eskabideen konplexutasuna eta kopurua kontuan hartuta.

Luzapenik ezarriz gero, interesdunari jakinarazi beharko zaio, eskabidea jaso eta hilabeteko epean, zeintzuk izan diren prozedura luzatzeko arrazoiak.

Eskubideak egikaritzeari ezar dakizkiokeen mugak

Eskubideak egikaritzeko aukera mugatu ahal izango da, baldin eta aipatutako mugak oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzen baditu eta honako alderdiak babesteko beharrezko neurri proportzionatua bada:

- Estatuaren segurtasuna.
- Defentsa.
- Segurtasun publikoa; arau-hauste penalen prebentzioa, ikerketa, detekzioa edo auzipetzea, edo zigor penalen egikaritzea, segurtasun publikoaren mehatxuen babes eta prebentzioa barne.
- Batasunaren edo Estatu kide baten interes publiko orokorreko helburu garrantzitsu bat lortzea; bereziki, Batasunaren edo Estatu kide baten interes ekonomiko edo finantzario garrantzitsuei lotuta badago (fiskalitatea, aurrekontuak eta moneta, osasun publikoa eta gizarte segurantza).
- Independentzia judizialaren eta prozedura judizialen babesa.
- Araututako lanbideetan arau deontologikoen gaineko hausturen prebentzioa, ikerketa, detekzioa eta auzipetzea.

[1] DBLOn sei hilabeteko epea aurreikusten da; errepikakortzat joko da epe horren barruan datuak erabiltzeko eskubidea behin baino gehiagotan egikaritu nahi izatea.

- Aginpide publikoaren egikaritzearekin -aldizka bada ere- lotutako gainbegiraketa, ikuskapen edo arautzea.
- Interesdunaren beraren babesa edo beste batzuen eskubide eta askatasunen babesa.
- Demanda zibilen egikaritzea.

Datuak erabiltzeko eskubidea

Oinarria

Erakundeari eskabidea aurkezten dion edozein pertsona fisikoren eskariz abiatzen da datuak erabiltzeko eskubidea bideratzeko prozedura, berau aurkezteko bidea edozein delarik ere (bide elektronikoa, aurrez aurrekoa edo posta). Ez da beharrezkoa informazioa zertarako eskatzen den justifikatzea.

Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak bere datu pertsonalak tratatzen ari diren ala ez jakiteko eta, hala bada, eskubidea izango du, baita, datu pertsonalak erabiltzeko eta informazio hau jasotzeko:

- tratamenduaren xedeak;
- datu pertsonalen kategoriak;
- datu pertsonalak zein hartzaileri edo hartzaile kategoriari jakinarazi edo jakinarazi zaizkion, bereziki hirugarren herrialdeetako hartzaileak edo nazioarteko erakundeak badira (baita nazioarteko transferentzietarako ezarritako bermeak ere);
- ahal izanez gero, datu pertsonalen aurreikusitako gordetze-epea edo, halakorik ezean, epe hori zehazteko baliatutako irizpideak;
- arduradunari datu pertsonalak zuzendu edo ezabatu ditzan eskatzeko eskubidea, edo datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea, edo tratamendu horri aurka egiteko eskubidea;
- kontrol agintaritzen aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea;
- datu pertsonalak interesdunarengandik berarengandik jaso ez direnean, horien jatorriari buruzko informazio guztia;
- erabaki automatizaturik dagoen ala ez, profilak sortzen diren barne. Kasu horietan, aplikatutako logikari buruzko informazio adierazgarria ere adierazi beharko da, baita tratamendu horren garrantzia eta interesdunarengan izan ditzakeen ondorioak ere.

Onarpena

Tratamenduaren arduradunak tratamenduaren xede diren datu pertsonalen kopia emango dio. Arduradunak, interesdunak beste edozein kopia eskatuz gero, kostu administratiboetan oinarritutako arrazoizko kanona jaso ahal izango du.

Interesdunak eskabidea bide elektronikoen bitartez aurkezten badu, informazioa formatu elektronikoan helaraziko zaio, hark beste bide batean jaso nahi duela adierazi ez badu behintzat.

Datuak erabiltzeko eskubidea onartu dela ulertuko da, baldin eta tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak -osotasunean- urrutitik erabili ahal izateko sistema zuzen eta seguru bat errazten badio. Horrelako kasuetan, nahikoa izango da arduradunak interesdunari sistema horretara nola iritsi azaltzeko egiten dion jakinarazpena; eskubidea egikaritzeko eskabidea onartutzat joko baita horrela.

Zuzenketa

Arduradunak interesdunari buruzko informazio kopuru handia tratatzen badu eta interesdunak datuak erabiltzeko eskubidea egikaritzeko orduan datu guztiak edo zati bat erabili nahi dituen zehazten ez badu, arduradunak, informazioa eman aurretik, datuak edo tratamendu-jarduera zehaztu dezan eskatu ahal i zango dio.

Muga

Datuak erabiltzeko eskubidea errepikakorra dela ulertuko da **sei hilabeteko epean behin baino gehiagotan** egikaritu bada, salbu eta hartarako kausa legitimo agerikoa justifikatzen bada.

Datuak zuzentzeko eskubidea

Oinarria

Tratamenduaren arduradunak, luze gabe, dagozkion datu pertsonal okerrak zuzentzeko eskubidea da. Tratamenduaren xedeak kontuan hartuta, interesdunak eskubidea izango du osatu gabe dauden datu pertsonalak osatzeko, baita adierazpen osagarri baten bitartez ere.

Kaltetuak eskabidean adierazi beharko du zein daturi egiten dien erreferentzia eta zein zuzenketa egin behar den. Beharrezkoa denean, eskabidearekin batera bidali beharko du tratamenduaren xede diren datuen zehaztasunik edo osotasunik eza justifikatzeko dokumentazioa.

Onarpena

(Eskubideei arreta eskaintzeko arau nagusiak: Epeak).

Datuak ezabatzeko eskubidea («Ahazteko eskubidea»)

Oinarria

Interesdunak eskubidea izango du, luze gabe, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak ezaba ditzan eskatzeko, baldin eta honako egoeretako bat gertatzen bada:

- Datu pertsonalak dagoeneko ez dira beharrezkoak jasoak edo tratatuak izan ziren uneko helburuetarako.
- Interesdunak tratamenduaren oinarri den baimena ukatu du.
- Interesdunak tratamenduaren aurka egin du eta ez dago tratamendua lehenesten duen bestelako arrazoi legitimorik, edo interesdunak tratamenduari aurka egin dio, publizitate komertzialari eta profilei dagokienez.
- Datu pertsonalak bidegabe tratatu dira.
- Datu pertsonalak ezabatu behar dira lege-eginbeharren bat konplitzeko.
- Datu pertsonalak informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintza jakin batekin lotuta eskuratu dira.

Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak beste arduradun batzuei jakinarazi badizkie eta horiek ezabatzera behartuta badago, arduradun horrek, eskura duen teknologia eta haren aplikazioaren kostua kontuan hartuta, arrazoizko neurriak hartuko ditu, neurri teknikoak barne, helburua izanik datu pertsonalak tratatzen ari diren gainerako arduradunei jakinaraztea interesdunak datu pertsonal horietarako sarbideak eta kopiak ezabatzeko eskatu duela.

Salbuespenak

Ezabatzeko eskubidea egikaritzea ukatu ahal izango da honako egoeretako bat gertatzen bada:

- Adierazpen- eta informazio-askatasunerako eskubidea egikaritzea.
- Arduradunak lege-eginbeharren bat konplitzea, Zuzenbidez, interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean.
- Osasun publikoari dagokion interes publikoaren izenean jardutea.

- Interes publikoaren izenean artxibatze-lanak burutzea, ikerketa zientifiko edo historikoa bideratzea edo estatistika helburuetarako baliatzea.
- Erreklamazioak formulatzea, egikaritzea edo defendatzea.

Era berean, arduradunak eraginpeko pertsonaren datuak gorde ahal izango ditu, baldin eta etorkizunean publizitate komertzial zuzenenean tratatuak izan daitezen saihesteko beharrezkoak badira.

Onarpena

(Eskubideei arreta eskaintzeko arau nagusiak: Epeak).

Tratamendua mugatzeko eskubidea

Oinarria

Interesdunak eskubidea izango du arduradunak datuen tratamendua muga dezan eskatzeko, baldin eta honako egoeretako bat gertatzen bada:

- Interesdunak datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratu du, arduradunak horien zuzentasuna egiaztatzeko behar besteko epearen barruan.
- Tratamendua bidegabea da eta interesdunak datu pertsonalak ezabatzeari uko egin dio, horren ordez datuen erabilera mugatu dadin eskatuta[2].
- Arduradunak dagoeneko ez ditu tratamenduaren xedeak lortzeko datu pertsonalak behar, baina interesdunak beharrezkoak ditu erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo defendatzeko.
- Interesdunak tratamenduari aurka egin dionean, arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunaren gainetik dauden egiaztatzen diren bitartean.

Aurretik adierazitako egoeraren baten ondorioz datu pertsonalen tratamendua mugatu bada, datuak tratamenduaren xede izan ahalko dira -gordetzea izan ezik- soilik interesdunak hartarako baimena ematen badu; edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo defendatzeko erabiltzen badira; edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten datuak babesteko erabiltzen badira; edo interes publiko garrantzitsuak babesteko erabiltzen badira.

Datu pertsonalen tratamendua mugatuta badago, argi eta garbi adierazita egon beharko du arduradunaren sistemetan.

Onarpena

(Eskubideei arreta eskaintzeko arau nagusiak: Epeak).

Datuen portabilitaterako eskubidea

Oinarria

Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunari eman dizkion datu pertsonalak jasotzeko, ohiko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean, eta eskubidea izango du, halaber, beste tratamendu-arduradun bati transmititzeko, hasierako arduradunak halakorik oztopatu gabe, baldin eta tratamenduaren oinarria baimena bera edo kontratu bat bada **eta** tratamendua baliabide automatizatuen bitartez egiten bada.

[2] Adibidez, arduradunaren kontra lege-ekintzak abiatzea.

Era berean, interesdunak eskubidea izango du, teknikoki posible denean, datu pertsonalak arduradun batengandik beste arduradunarengana zuzenean transmititzeko.

Eskubide hori ez da aplikatuko tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Onarpena

(Eskubideei arreta eskaintzeko arau nagusiak: Epeak).

Tratamenduari aurka egiteko eskubidea

Oinarria

Interesdunak eskubidea dauka, egoera bereziren bat dela eta, edozein momentutan datu pertsonalak tratamendu-xede izan daitezen aurka egiteko, baldin eta tratamendu horren oinarria interes publikoaren izenean, botere publikoen izenean edo interes legitimoen izenean burututako eginkizun bat betetzea bada -profilak sortzea barne-.

Arduradunak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, salbu eta interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik dauden arrazoi legitimoak egiaztatzen baditu, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo defendatzeko erabiltzen badira, edo interes publikoaren izenean erabiltzen badira.

Horrela, interesdunarekin lehendabiziko harremana gertatzen denean, berariaz aipatu beharko da tratamenduari aurka egiteko eskubidea, argi eta garbi adierazita eta beste edozein informaziotatik bereizita.

Onarpena

(Eskubideei arreta eskaintzeko arau nagusiak: Epeak).

Erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko eskubidea

Oinarria

Interesdunak eskubidea dauka tratamendu automatizatuan -profilen sorrera barne- soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, baldin eta tratamendu horrek harengan ondorio juridikoak eragiten baditu edo antzeko ondorio adierazgarririk eragiten badu, salbu eta:

- Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren arteko kontratu bat sortu edo egikaritzeko;
- Tratamendua aurreikusita badago tratamenduaren arduradunari aplika dakiokeen Zuzenbidean. Halakoetan ere ezinbestean ezarri beharko dira interesdunaren eskubide, askatasun eta interesak babesteko neurri egokiak;
- Tratamenduaren oinarria interesdunaren berariazko baimen-adierazpena bada.

Adierazitako egoera guztietan, arduradunak behar besteko neurriak hartuko ditu interesdunaren eskubide, askatasun eta interes legitimoak babesteko, gutxienez honakoak bermatzeko: arduradunaren aldetik giza eskuhartzea izateko eskubidea, bere ikuspuntua adierazteko eskubidea eta erabakia aurkaratzeko eskubidea.

Tratamendua ezin izango da burutu, baldin eta helburua bada datu kategoria berezien tratamendu automatizatuan oinarrituta pertsona bati buruzko erabakiak hartzea, salbu eta pertsonak berariaz baimena eman badu edo tratamendu hori beharrezkoa bada oinarrizko interes publiko baten izenean, aplika daitekeen legediaren oinarriaren arabera.

11.- OHARRAK